Azkenik, euskararen erabilera sustatzeko eta haurren hizkuntza-gaitasuna garatzeko helburuarekin, Uda Leku sakoneko lanketa bat segitzen du Plazara kolektiboarekin batera. Horren baitan, ebaluatzen ditugun tresnak sortu ditugu, etengabeko hobekuntza bermatzeko.

***Les partenariats***

*Malgré le manque d'équipe permanente pérenne, ne facilitant pas la mise en place de nouveaux partenariats, nous avons réussi en début d'année grâce à un projet intergénérationnel de faire un échange avec la maison de retraite Etchetoa de Zuraide. La 20aine de résidents bascophones et les enfants que nous accueillons ont participé à différents projets.*

*Aussi cette année, grâce à la participation au forum des association d'Itsasu nous avons découvert de nouveaux partenaires ou structures avec qui nous pourrions nous allier pour créer de nouveaux projets comme par exemple la ressourcerie Errobil, mais cela reste une affaire à suivre...*

*Enfin, dans l'intention de favoriser la pratique de l'euskara et de développer les compétences linguistiques des enfants, Uda Leku continue le travail de fond avec le collectif Plazara. Nous avons créé des outils que nous évaluons régulièrement.*

**Komunikazioa**

Iragarki taularen bidez, gure proiektuak, eskaintzen diren aktibitateak edo ateraldiak, tronbinoskopoa eta menuak familieri informazioa ematen jarraitzen dugu.
Email tipo baten bidez mezu-eredu bat plantan ezarri dugu gurasoen galdera ohikoei eraginkorrago erantzuteko. Horren bidez, proiektu pedagogiko sinplifikatua eta oporretako jarduera-programak ere jasotzen dituzte.

Bestalde sare sozialetan gure presentzia indartu nahi dugu, bilgunearekin edo herriko etxeko haurtzaroari lotutako informazioak partekatuz, bilguneko gurasoei zuzenduta.

***Communication***

*Grâce aux panneaux d'affichage, nous continuons d'informer régulièrement les familles sur nos projets, les activités proposées, le trombinoscope ainsi que les menus.*

*Nous avons également mis en place un mailing type afin de répondre plus efficacement aux questions fréquentes des parents. Ce support leur permet de recevoir le projet pédagogique simplifié ainsi que les programmes d'activités des vacances.*

*Enfin, nous cherchons à renforcer notre présence sur les réseaux sociaux en partageant des actualités en lien avec l'accueil de loisirs et la commune, à destination des parents fréquentant la structure.*

## *II.5 Egonaldiak 2025 / Séjours 2025*



**Egonaldiak, elkartearen jarduera nagusi bat / *Les séjours, une des activités principales de l'association***

Oinarrian, Uda Leku, egonaldien antolatzeko buraso eta irakasle zenbaiten eskutik sortu zen. Urtez urte, aktibitate alor hori hedatu da eta familien asmoeri egokituz joan da. Jarduera garatu ahal izan dugu, diru laguntza berrieri esker (2002 urtetik aintzina), eta partaidetzak garatuz (2008an, Euskal Haziak elkartearekin adibidez).

Uda Leku elkarteak atxikimendu azkarra du egonaldientzat :
- Euskararen erabilpena manera ludiko batean bultzatzeko gune ezin hobea baita ;
- Lurralde osoko haurrek parte hartzen ahal dutelako ;
- Pedagogikoki Uda Lekuk hedatu nahi dituen baloreak egonaldietan azkarki bizitzen baitira (elkarbizitza, autonomia etb.) ;
- Haurreri lurraldeko aberastasunak ezagutarazteko (ondare, natura, kultura etb.).

*À l'origine, l'association Uda Leku avait été créée en 1983 pour la mise en place de "colonies de vacances". Ce secteur d'activité s'est considérablement diversifié, grâce notamment à des nouveaux financements (à partir de 2002), et des partenariats (Euskal Haziak à partir de 2008 par exemple).*

*L'activité séjour reste une des principales activités de l'association. Nous y avons un attachement particulier pour plusieurs raisons :*
*- Les egonaldi sont des espaces idéaux pour promouvoir la pratique de l'euskara de façon ludique ;*
*- Les enfants de l'ensemble du territoire peuvent prétendre y participer ;*
*- D'un point de vue pédagogique, les valeurs véhiculées par Uda Leku sont vécues de façon plus forte en egonaldi (apprentissage du vivre-ensemble, autonomie…) ;*
*- Les egonaldi nous permettent de faire découvrir la richesse (naturelle, patrimoniale, culturelle etc.) de notre territoire aux enfants.*

## Egonaldien mapa




## EGONALDIAK - SEJOURS

**IREKITZEA**
**OUVERTURE**

77 egun- jours

1848
ordu - heures

**EGONALDI KOPURUA**
**NOMBRE DE SEJOURS**
13

**PUBLIKOA**
**PUBLIC**
312 haur - enfants
275 familia - familles

**LANGILEAK**
**SALARIES**
1 ETP

**HERRIAK /**
**COMMUNES**
66

**FREKANTAZIOA**
**FREQUENTATION**
1 931 H/E-J/E
99% betetze tasa
taux d'occupation

# 2025. URTEKO EGONALDIEN BILANA

BILAN DES SÉJOURS 2025

**Egonaldien parte hartzearen bilakaera**

***Évolution des fréquentations des séjours***

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2025 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Egonaldiak (h/e)** *Séjours (jr/enf)* | 1752 | 1902 | 1779 | 1734 | 1578 | 324 | 1308 | 1872 | 1884 | 1854 | 1931 |
| **Bilakaera** *Evolution* | 4,3% | 8,6% | -6,5% | -2,5% | -9,0% | -79,5% | 303,7% | 43,1% | 0,6% | -1,6% | 4,2% |




**2025-ko egonaldien izen emate eskaerak & frekantazioak**

**Demandes d'inscriptions et fréquentations réelles des séjours de vacances 2025**

| | Egun kop. *Nbre jours* | Toki kopurua *Nbre de places* | Aurre izen emateak Pré-inscriptions | Haur kopurua *Nbre d'enfants* | Haur/egun kopurua *Nbre Jr/enf* | Betetze tasa *Taux de remplissage* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Negu Leku** | 6 | 48 | 64 | 47 | 282 | 98% |
| **Argitxo naturan (Baigorri)** | 6 | 24 | 33 | 23 | 138 | 96% |
| **Mendira! (Baigorri)** | 6 | 24 | 22 | 23 | 138 | 96% |
| **Baserrira! (Baigorri)** | 6 | 24 | 55 | 24 | 144 | 100% |
| **Malabaristak (Berrogaine)** | 6 | 36 | 42 | 36 | 216 | 100% |
| **Natur'Leku (Sara)** | 6 | 24 | 50 | 24 | 144 | 100% |
| **Natura & Zaldi (Sara)** | 6 | 20 | 82 | 20 | 120 | 100% |
| **Txirrindu'Landes (Landesak)** | 6 | 16 | 58 | 16 | 96 | 100% |
| **Uhain'Art (Hendaia)** | 6 | 24 | 75 | 24 | 144 | 100% |
| **Kontrabandistak (Sara)** | 6 | 20 | 22 | 19 | 114 | 95% |
| **Uhain Hart (Hendaia)** | 6 | 24 | 39 | 24 | 144 | 100% |
| **Txil'beruan (Berrogaine)** | 6 | 36 | 67 | 36 | 216 | 100% |
| **Gaztetxoen egonaldia (Kanbo)** | 5 | 7 | 7 | 7 | 35 | 100% |
| **Sous total Uda / Eté** | **71** | **279** | **552** | **276** | **1649** | **99%** |
| **TOTAL URTEA / Année** | **77** | **327** | **616** | **323** | **1931** | **99%** |

**2025-ko egonaldiak: urte baikorra berriz ere | *Séjours 2025: encore une année positive :***

Gure egonaldiek, urte guziz bezala arrakasta ukan dutela pentsatzen segitzen dugu. Hain zuzen ere, 2025 urtean, 327 tokirentzat 616 eskaera edo aurre izen-emate ukan ditugu gure web gunean. 616 eskaera horien artean, hainbat familiek bi edo hiru egonaldi eskaera ezberdin egin zituzten udan, zozketatuak izateko aukera gehiago ukateko. Hori dela eta, 500 haur desberdinetatik 187 haurrek ezin izan dute egonaldi batean parte hartu.

*Cette année encore les séjours de vacances d'été et d'hiver ont remporté un franc succès. En effet, pour 327 places proposées en 2025, nous avons reçu 616 demandes de pré-inscription par notre site internet. Parmi ces 616 demandes, certaines familles ont fait plusieurs vœux parmi les séjours d'été pour maximiser leurs chances d'être tiré au sort. Sur un total de 500 enfants, 187 n'ont pas pu participer à un séjour de vacances.*

**Bi pertsona koordinazioan | *Deux personnes en ccordination***

Amets Bidart, Uztaritze eta Itsasuko bilguneen zuzendaria elkartean hasi da lanean 2024-ko irailan. Bilgunearen zuzendaritzaz gain, bere misioetan, egonaldien koordinazioan Amets Lahetjuzan laguntzea da ere. Hori dela eta, 2024-ko azken trimestroan eta 2025 urte osoan, Amets B eta Amet L-k egonaldien koordinazioa segurtatu dute. Bikote honek koordinazio lana dinamizatzen eta aberasten du, bien artean lana partekatzea eta lana arintzea bermatuz.

*Amets Bidart, directrice de l'ALSH multi-sites Uztaritze Itsasu a rejoint l'équipe d'Uda Leku en septembre 2024. Au-delà de ses missions de directrice d'ACM, elle co-coordonne l'organisation des séjours de vacances avec Amets Lahetjuzan. Ce tandem dynamique et efficace a permis de donner un nouveau souffle à la coordination de l'activité des séjours, en enrichissant les pratiques de l'équipe et permettant une meilleure répartition de la charge de travail tout au long de l'année.*

**Izen emate eta frekantazioak | *Inscriptions et fréquentations***

Udan, orokorrean dena ontsa pasa da, egonaldiek arrakasta ukan dute. Zaldi egonaldi batentzat adibidez, 20 tokirentzat 82 aurre izen-emate ukan ditugu, harrigarria. Beste egonaldi batzu, poliki poliki bete dira.

Nerabereen "Txil'beru" egonaldiak kriston arrakasta ukan du aurtean. Duela 5 urte sortu zen egonaldi honen parte hartzeak poliki poliki emendatu ziren urtez urte, sekulan betea izan gabe (34 gazte 36 tokirentzat 2024an). 2025 urtean 67 izen emate eskaera ukan ditugu, gure harridura handirako.

2025 ean, Negu Leku eski egonaldiarentzat eskaera apaldu da; 64 aurre izen emate ukan ditugu 48 tokirentzat (85 eskaera 2024an). Tendentzia bat erakusten ote du edo gertakari puntuala ote dea? Azkenean, 47 haur eta gazte joan dira Candantchura. Lehen aldikotz ez da osoki bete, azken momentuko anulazioak izan direlarik, itsoite zerrendan ziren haur guziek jadanik beste egitarau bat finkatu zutelako aste horrentzat. Azken momentuko aldaketa asko izan dira aurten, lan gehigarria emanez koordinatzaileei. Ondorioz barne arautegia eguneratu dugu, anulazio baldintzak berriz argitzeko. Barne araudi berria udako egonaldieen izen emate garaian komunikatua izan da familieri.

*L'été s'est globalement bien déroulé, les séjours ont eu du succès. Pour le séjour équitation de 20 places par exemple, nous avons eu 82 demandes de préinscriptions. D'autres séjours se sont remplis plus doucement, atteignant tout juste l'effectif maximum.*

*Le séjour des collégiens "Txil'Beruan" a également eu un énorme succès cette année, dès la période des inscriptions. Ce séjour, que nous avions créé en 2020, avait vu augmenter ses effectifs petit à petit, passant de 19 à 34 jeunes en 2024. Il n'avait jamais été totalement complet (34 inscrits en 2024 pour 36 places). A notre grand étonnement nous avons eu 67 pré-inscriptions cette année, nous obligeant à organiser un tirage au sort pour ce séjour aussi.*

*Nous soulignons d'autre part la diminution des demandes d'inscriptions de Negu Leku, qui est passé de 85 demandes en 2024 à 67 demandes en 2025 pour 48 places. Est-ce une tendance ou est-ce ponctuel? Au final, 47 jeunes sont partis à Candantchu, c'est la première année que le groupe n'était pas complet. Il y a eu beaucoup d'annulations de la part des familles, augmentant de façon assez importante la charge de travail*

*des coordinatrices. Tous les jeunes qui étaient en liste d'attente ont été contactés, mais beaucoup, prévenus tardivement, avaient déjà réorganisé leurs vacances. Face à ces nombreuses annulations, nous avons revu le règlement intérieur des séjours, pour clarifier et mieux faire respecter les conditions d'annulation. Le nouveau règlement intérieur a été communiqué aux familles pendant la période d'inscription des séjours d'été.*

**Berria: Gaztetxoen egonaldia | *Nouveau: séjour jeunes***

Txil'beruan egonaldiaren arrakastaren ondorioz, 31 gaztek ezin izan dute parte hartu. Haietako bazuek, 3.ean eskolatuak izanki beraien azken egonaldia ezin eginik, laguntza galdetu dute Uda Lekuko laguntzaile bati egonaldi bat antolatzeko. Bada urteak eta urteak Uda Lekuko animatzaile zonbaitzuek amesten dutela gazte proiektu bat segitzea, 15-17 urte arteko gazteekin. Uda honetan, 7 gazte horien motibazio eta inplikazioa kontutan harturik, aukera ona ikusi dugu epe ertaineko begirada batekin gazte proiektu hau gauzatzen laguntzea, zendako ez 2026 udan proiektu lodiago baten gauzatzeko ideiarekin. Hori dela eta 7 gaztek 5 eguneko egonaldi bat antolatu dute, Xalbador kolegioan kanpatuz, Uda Lekuko bi animatzailek lagundurik. Egonaldiaren gunea, egitaraua, antoketa eta budxeta taldean landu dituzte, Uda Lekuko bi animatzailek (bolondres) lagundurik. Gazte proiektu ttiki honek irudikatzen ditu elkarteak sustatzen dituen baloreak; gazteen autonomia garatzea eta gazteek beraien aisien aktore izatea, talde lana esperimentatuz besteak beste. Ikustekoa orain ea dinamika hau mantentzen edo azkartzen den, 2026 udan horrelako gazte proiektu bat aitzina eramateko.

*Suite au succès du séjour Txil'beruan, 31 jeunes collégiens n'ont pas pu y participer. Parmi eux, des jeunes de 3ième pour qui c'était la dernière année à Uda Leku, ont demandé de l'aide courant le mois d'avril/mai à un animateur de l'association pour organiser un séjour pour l'été 2025. Cela fait des années que des animateurs d'Uda Leku rêvent de monter des projets avec des jeunes de 15-17 ans. Prenant en compte la motivation des 7 jeunes de 14 ans, nous y avons vu l'occasion de tester leur implication dans la préparation et la mise en œuvre du projet, avec dans l'idée de développer un projet séjour un peu plus ambitieux pour l'été 2026. Ainsi, 7 jeunes, accompagnés de 2 bénévoles d'Uda Leku ont organisé un séjour de 5 jours, sous tente au collège Xalbador. Le lieu du séjour, le programme d'activité, l'organisation de la vie quotidienne (repas, courses etc.) et le budget ont été travaillés et préparés par/avec les jeunes. Ce projet de jeune illustre exactement ce que défend Uda Leku en termes d'éducation populaire et de loisirs éducatifs, à savoir, l'accompagnement des mineurs dans la prise de responsabilités, rendre les jeunes acteurs de leurs loisirs, tout en expérimentant la méthodologie de projet et le travail d'équipe. A voir maintenant si la dynamique se maintient, voire d'accentuer pour un projet jeune peut être un peu plus ambitieux pour l'été 2026.*

**Taldeak | *Equipes***

2025 urteko 13 egonaldien zuzendaritzak 7 pertsona ezberdinek segurtatu dituzte, hauetatik 2 langile permanente izanki, 4 noiztenkako zuzendari kontratupean eta bat laguntzaile gisa. 33 animatzaile ezberdinek parte hartu dute egonaldietan, udan zein neguan, batzuek bakar bat eginez, besteek bizpahiru. Zuzendari berrientzat, azken urteetan bezala, barne formakuntza bat proposatu dugu udaberrian Uda Lekuko egonaldien zuzendarien eginbeharrak eta lan tresnak aipatzeko eta esperientziak trukatzeko. Lan saio horiek beti aberatsak dira parte hartzaile guzientzat, gure egonaldien kalitatea segurtatzeko baliabide bat gehiago. Koordinatzaileekin lotura eta zuzendarien arteko elkarlaguntza ere sustatzen ditu barne formakuntza honek.

*Les 13 séjours de vacances de l'année 2025 ont été dirigés par 7 personnes différentes, celles-ci étant soit salariés permanents de l'association (2) soit directeurs occasionnels (4), ou directeur bénévole (1). 33 animateurs animatrices ont encadré nos séjours d'été et/ou hiver. Certains n'ont participé qu'à un séjour, d'autres deux ou trois. Pour les nouveaux directeurs, comme les années précédentes, nous avons animé une formation interne, afin de transmettre les procédures et outils internes de direction ainsi que pour partager les expériences et pratiques des années précédentes. Ces temps de formations sont très enrichissants pour chaque participant, un moyen supplémentaire pour garantir la qualité de nos séjours de vacances. Ces temps d'échanges permettent également de renforcer les liens entre les directeurs et les deux coordinatrices des séjours, ainsi que l'entraide entre directeurs.*

**Familiekin komunikazioa | *Communication avec les familles***

Ekaineko informazio bilkuran 40-bat familia hurbildu zaizkigu Kanbora. Hitzordu hortan zuzendari bakoitzak bere egonaldiaren antolaketa, animatzaile taldea eta proiektu pedagogikoa aurkezten du familieri. Bilkura honen bidez, familiei buruan dituzten galdera guziak pausatzeko aukera eman nahi diegu, konfiantzazko harremanak sendotzeko. Lehen aldikotz bilkura presentzialean eta bisioz segitzeko aukera proposatu dugu. Aski zaila izan da zuzendarientzat bilkura nahi bezala kudeatzea, elebitasunaren kudeaketa kontutan hartuz gainera. Heldu den urteari begira, antolaketa berriz pentsatu beharko dugu, bilkuraren dinamika eta hizkuntzen kudeaketan hobetzeko.

2024 urtean, inkesten emaitzetan, baita zuzendarien bilan bilkuratik atera zen egonaldi denboran zer eta nola komunikatzen dugun familiekin lantzekoa genuela. Hori dela eta, urtez urte, haur gazteenen familiak lasaitu nahian eta konfiantzazko harremana mantendu nahian, egonaldi denboran haurren argazkiak bidaltzen ditugu familieri taldearen berri emateko. Hasierako asmoa positiboa bazen ere, komunikazio horren mugak senditzen ditugu geroz eta gehiago: guraso batzuek egunero nahi lukete mezu bat, guraso batzuek zuzendaria kontaktatzen dute erranez beraien haurra ez dutela ikusi argazkian beraz ea dena ontsa doan, azken egunean haur batzuek ez dute aktibitateak komentatzeko aukerarik gurasoekin, jadanik gauza askotaz jakinean direlako, egonaldi batzuetan erregularki komunikatzen da besteetan guttiago eta guraso batzuek desoreka hori azpimarratzen dute .... Ahantzi gabe zuzendari edo animatzaile taldearentzat ere lan kargu bat gehiago dela, eta denek ez dituztela ber baliabideak egonaldiaren aterpe motaren arabera. Egoera honek elkarte mailan, egonaldi denborako komunikazioa gogoetatzeko beharra azpimarratu zigun. 2025 udako egonaldien prestaketa fasean, arlo hori aipatu da zuzendari guzien artean. Zuzendari bakoitzak, bere animatzaile taldearekin aipaturik erabaki du noiz eta nola komunikatu familiekin. Informazio hau proiektu pedagogikoan argiki idaztea eta aurkeztea galdetua izan zaie, gurasoek, proiektua irakurri ondoren jakin dezaten komunikazioa nola pasako den.

*Environ 40 familles se sont rendues aux réunions d'information proposées en juin. Lors de ces rendez-vous, chaque directeur présente l'organisation de son séjour, l'équipe et le projet pédagogique. Ces rencontres permettent également aux familles de poser toutes les questions qu'elles souhaitent et ainsi renforcer la confiance mutuelle.Cette année, pour la première fois, nous avons donné la possibilité aux familles de suivre la réunion également en visio. Cet exercice a été assez difficile à gérer pour les directeurs, aussi bien pour la dynamique de la réunion que sur la gestion du bilinguisme. Pour l'année prochaine, nous devrons repenser le format de la réunion pour améliorer la dynamique de la rencontre et la gestion des traductions.*

*Les résultats de l'enquête de satisfaction et le bilan des directeurs ont fait émerger la question de la communication avec les familles pendant les séjours. En effet, depuis plusieurs années, à la demande des parents des plus jeunes enfants, et dans un souci de transparence, les directeurs des séjours envoient des photos aux familles pour donner des nouvelles pendant le séjour. Bien que l'intention soit bonne, nous constatons les limites de cette démarche: des parents souhaiteraient un message avec des photos tous les jours, des parents contactent le directeur car ils ne voient pas leur enfant en photo et veulent savoir si tout se passe bien pour lui, le dernier jour, il n'y a pas d'effet de surprise lors des retrouvailles car les parents sont déjà informés de beaucoup de choses, cette communication est très régulière dans certains séjours et moindre dans d'autres et les parents soulignent cette différence, ... Sans oublier que l'envoi des messages et photos est une tâche supplémentaire qui s'ajoute au directeur et/ou aux animateurs et que tous n'ont pas les mêmes moyens logistiques selon les types d'hébergement. Cette situation nous a incité à mener une réflexion globale sur la communication pendant les séjours. Nous avons travaillé ce sujet dans la phase de préparation des séjours avec l'ensemble des équipes. Chaque directeur, en concertation avec son équipe, choisit quand et comment communiquer avec les familles pendant le séjour. Nous demandons aux directeurs de préciser clairement cette information dans le projet pédagogique du séjour qui est communiqué aux familles (mail + réunion d'information) afin que chaque parent soit informé en amont du séjour.*

**2025 urteko Famili egonaldiak | *Les séjours familles 2025***

Plazara kooperatibaren gogo batetik abiatuta, EBETE kooperatiba, Dindaia fundazioa eta AEK ren partaidetzarekin 2025 urteko udaberriko oporretan, 2 mugaz gaindiko familia egonaldi antolatu ditugu.

Egonaldi hauen helburuak, hauek ziren:

-Helduen eta haurren hizkuntza gaitasuna hobetu, motibazioan eta autoestiman eraginez.

-Familietan hizkuntza ohiturak aldaketak sustatu, erabilera lagunduz eta tresna konkretuak emanez.

-Familien arteko loturak sortu eta Euskal Herriko lurraldeak ezagutarazi.

Lehen edizio honetan, antolatzaileentzat mugaz gaindiko dimentsioa garrantzitsua izan da

- Ipar eta Hego Euskal Herriko familiak errezibitu nahi genituen, loturak sortuz eta frantsesa edo gaztelania ez den hizkuntza komun bat baliatuz (eta euskararen irakaspena indartu).

- Ipar Euskal Herrian murgildu nahi genuen (Arbonako Arantzola etxea, Baigorriko Oronozia…), baina egun bat eta gau bat Gipuzkoan eta arratsalde bat Nafarroan antolatu ditugu

-Ipar eta Hego Euskal Herriko eragileak elkarlanean aritu gira, elkar inspiratuz eta elkarrengandik ikasiz.

Konkretuki beraz, iparralde eta hegoaldeko familiak elkartu ditugu:

-Baigorri/Gipuzkoako egonaldian: 15 heldu (8 Lapurditik, 2 Baxe Nafarrotik, 3 Nafarrotik, 1Gipuzkoatik eta 1 Arabatik) eta haien 3-12 urteko 26 haur.

-Arbona/Nafarroko egonaldian 9 Lapurdiko heldu eta haien 3-12 urteko 13 haur

Goizean helduek AEK rekin euskara ikasten zutenean, haurrek Uda Lekuko animatzaileekin ikasi eta jostatu dira. Arratsaldeetan aldiz, familiak elgarrekin, ateraldi, sukaldari tailer, kontzertu, bisita desberdinak bizi izan ahal dituzte.

*À partir d'une initiative de la coopérative Plazara, et avec la participation de la coopérative EBT, de la fondation Dindaia et d'AEK, nous avons organisé, durant les vacances de printemps 2025, deux séjours familiaux transfrontaliers.*

*Les objectifs de ces séjours étaient les suivants :*

- *Améliorer les compétences linguistiques des adultes et des enfants, en agissant sur leur motivation et leur estime de soi.*
- *Encourager des changements dans les habitudes linguistiques au sein des familles, en soutenant l'usage de la langue et en proposant des outils concrets.*
- *Créer des liens entre les familles et faire découvrir les différents territoires du Pays Basque.*

*Pour cette première édition, la dimension transfrontalière était importante pour les organisateurs :*

- *Nous souhaitions accueillir des familles d'Iparralde et d'Hegoalde, afin de créer des liens en utilisant une langue commune autre que le français ou l'espagnol (et renforcer ainsi l'apprentissage du basque).*
- *Nous avons souhaité proposer une immersion en Iparralde (à Arantzola à Arbona, à Oronozia à Baigorri…), tout en organisant également une journée et une nuit en Gipuzkoa ainsi qu'un après-midi en Navarre.*
- *Des acteurs d'Iparralde et d'Hegoalde ont collaboré, en s'inspirant mutuellement et en apprenant des uns des autres.*

*Concrètement, nous avons donc réuni des familles du nord et du sud :*

- *Lors du séjour Baigorri/Gipuzkoa : 15 adultes (8 du Labourd, 2 de Basse-Navarre, 3 de Navarre, 1 de Gipuzkoa et 1 d'Araba) et leurs 26 enfants âgés de 3 à 12 ans.*
- *Lors du séjour Arbona/Navarre : 9 adultes du Labourd et leurs 13 enfants âgés de 3 à 12 ans.*

*Le matin, pendant que les adultes apprenaient le basque avec AEK, les enfants apprenaient et jouaient avec les animateurs d'Uda Leku. L'après-midi, toutes les familles, adultes et enfants ont pu vivre différentes activités : sorties, atelier cuisine, concert, visites diverses.*

**2026-2028 “Eusguneak” merkatu publikoa | *Marché public Eusguneak***

Urria hastapenean, Euskararen erakunde publikoak luzatu duen Eusguneak deitutako merkatu publikoari erantzun diogu. Merkatuak bi atal nagusi zituen, bata 8-11 urteko 80 haurrentzat 7 eguneko egonaldiak proposatzea, euskaraz bistan dena, euskarak prestentzia nahiko handia duen Euskal Herriko lurralde batean. Bestea, 12-15 urteko 20 gazterentzat 10 eguneko egonaldia antolatzea, ber ispirituan. Bigarren atalari erantzutea erabaki dugu. Aurkeztu dugun proiektua, 12-15 urteko 20 gazteeri 10 eguneko egonaldia da, Gipuzkoan, hala nola Donostin eta Azkoitian, aktibitate anitzen inguruan (kirola, kultura, tokikoen ezagutza, hizkuntza). Egonaldian helburu pedagogiko asko ditu, besteak beste euskarak mugarik ez duela gazteeri biziaraztea, Euskal Herriko lurralde eta euskalkien errealitate ezberdinak deskubriaraziz. Merkatu publiko baten funtzionamendua deskubritzeko aukera izan da, Uda Lekuk ez zuelako sekulan horrelakotan parte hartu. Txostena bidali genuen urriaren 2-ko, aurkezpen-negoziaketa bilkuran parte hartu genuen, eta azaro bukaeran, EEP-k jakinarazi zigun gure proiektua atxikia zela. Hori dela eta, 2026, 2027 eta 2028 udan, Uda Lekuk 10 eguneko mugazgaindiko egonaldi bat antolatuko du, 12-15 urteko 20 gazterentzat. EEP-ko teknikariarekin harreman hestuan lanean segituko dugu heldu diren hilabeteetan, proiektua aitzina eramateko.

Début octobre, nous avons répondu au marché public convoqué par l'Office public de la langue basque. Le marché comportait deux grands volets, l'un proposant des séjours de 7 jours pour 100 enfants âgés de 8 à 11 ans, en basque, sur un territoire du Pays Basque où la langue basque bénéficie d'une présence relativement élevée, l'autre proposant un séjour de 10 jours pour 20 jeunes âgés de 12 à 15 ans. Nous avons décidé de répondre à la deuxième partie du marché public. Le projet présenté est un séjour de 10 jours pour 20 jeunes de 12 à 15 ans, en Gipuzkoa, 5 jours à Donostia et 5 autres à Azkoitia, autour de multiples activités (sport, culture, rencontres locales, langue). Le séjour poursuit de nombreux objectifs pédagogiques, dont celui de faire vivre aux jeunes l'euskara sans de frontières, en leur faisant découvrir les différentes réalités des territoires et des dialectes du Pays Basque. C’est également l’occasion pour l’association de découvrir le fonctionnement d'un marché public car Uda Leku n'y a jamais participé. Le dossier a été transmis le 2 octobre, nous avons participé à la réunion de présentation/négociation et fin novembre, l'OPLB nous a informés que notre proposition était retenue. C'est pourquoi, durant l'été 2026, 2027 et 2028, Uda Leku organisera un séjour transfrontalier de 10 jours pour 20 jeunes de 12 à 15 ans. Nous continuerons à travailler en étroite collaboration avec les techniciens de l'OPLB dans les mois à venir pour faire avancer le projet.

**Negu Leku egonaldiari buruzko gogoeta | *Réflexion sur le séjour Negu Leku***

Negu Leku eski egonaldiaren izen emateen bilakaera, elur eskas arriskua, egonaldiaren kostua, prezioen emendapena, egonaldiaren ekarpen pedagogikoa eta elkartearen baloreak kontutan hartuz, 2025 urte bukaeran Neguko egonaldiari buruzko gogoeta bat ideki dugu. Helburua: Negu Leku egonaldiaren geroa, bilakaera, edo moldaketa/eraldaketa pentsatzea, antizipatzea, eztabaidatzea. Gogoetak 2026 urtean zehar segituko du, 2027an, 2028an edo agian berantago egonaldi berri bat proposatzeko (edo ez).

*En fin d’année 2025 nous avons débuté une réflexion concernant notre séjour d’hiver. Compte tenu de la baisse des inscriptions, du risque de manque de neige à moyen /long terme, de la hausse des tarifs (etc.) il nous semble important d’anticiper cette réflexion. Objectif: penser, anticiper, débattre sur l'évolution ou la transformation de Negu Leku, pour proposer une nouvelle formule en 2027, 2028 ou plus tard (ou pas).*

**Elkargoaren sustengu jarraikia | *Soutien continu de la CAPB***

Azkenik, 2021-tik Euskal Hirigune Elkargoak, lurraldeko haur guzien egonaldien finantzamenduan parte hartzen du. Hori dela eta, EHE-k 32,80 €/haur egunka ordaindu gaitu 2025 urteko egonaldientzat. Uda Leku elkartearentzat, sustengu politiko hori biziki baikorra da, diru laguntza inportantea da eta gure elkartearen lanaren kalitatearen ezagupena erakusten du.

*Enfin, depuis 2021, la Communauté d’Agglomération du Pays Basque participe au financement des séjours de vacances pour les enfants de l’ensemble du territoire à hauteur de 32,80 €/journée-enfant. Ce soutien politique en faveur d’Uda Leku est très positif, un soutien financier important, qui représente surtout une reconnaissance de la qualité de notre travail.*

# I. 2025 -ko PUBLIKOA

*PUBLIC 2025*

| | |
|---|---|
| Famili kopurua – *Nombre de familles* | 275 |
| Haur kopurua – *Nombre d'enfants* | 312 |
| Lehen maila / *Primaire* | 210 |
| Kolegioa / *Collège* | 102 |
| Sexua | ♂ = %35<br>♀= %65 |
| Familien familia kozientea /<br>Quotient familial des familles | % 48 < 1500€<br>%52 > 1500 € |

**Lurralde osoko haurrentzat – *Pour des enfants de l'ensemble du territoire* :**

66 herri desberdinetako haurrak hurbildu zaizkigu.

*Les enfants de 66 communes différentes ont participé à un séjour d'Uda Leku en 2025*




**Haurren jatorria eskola sektoreka / *Origine des enfants par filière scolaire***




Konparatzeko, 2024 urtean | *A tritre de comparaison, en 2024*:

Seaska = 80% Pribatua | *Privée*= 9% Publikoa / *Publique* = 11%

## *II.6 Formakuntza / La formation*









**Formakuntza profesionala / Formation professionnelle**

2025 urtean bi formakuntza profesional ekintza antolatu ditugu, hala nola 2024 urtean esperimentatu zen haurtzaindegietako profesionalei zuzendu 5 eguneko formakuntza 2 aldiz antolatu da aurten.

30 orduko formakuntza hau, LEHA sareko profesionalen beharrei erantzuteko sortua izan da, (murgiltze ereduan edo elebidunak diren haurtzaindegien sarea), CNFPT, EEP eta Elkargoaren arteko partaidetzaren barne. Uda Lekuri galdetua izan zaio, Qualiopi ziurtagiridun gisa, formakuntza administratiboki kudeatzea haurtzaindegi pribatuetako langileek finantzamenduak lortu ahal izateko.

Ikastunek, formatzaileek eta partaideek 2024 urteko saioaren bilan biziki positiboa egin ondoren, 2025 urtean 2 saio proposatzea erabaki zen.

- 2025-ko maiatza eta uztaila artean: 13 ikastunetatik 8 publikotik heldu ziren (CNFPT-ren gain) eta 5 pribatutik (Uda Leku- Uniformation -en gain).
- 2025-ko azaroa eta abendua artea: 13 ikastunetatik 7 publikotik eta 6 pribatutik.

“Ekintza kolektiboen” finantzamendu dispositiboa erabalia da haurtzaindegi pribatuetako langileentzat. 2026 urtea esperimentazio fasearen azken urtea izanen da. Helburua, formakuntza haur esperimentaziotik ateratzea katalogo arruntean sartzeko. Talde mistoaren (publiko/pribatu) kudeaketa administratibo-finantzarioa oraindik lantzekoa dugu partaide guzien artean.

*Nous avons organisé 2 actions de formation professionnelle en 2025, soit deux sessions de la formation expérimentale destinée aux professionnels de la petite enfance des structures publiques et privées expérimentées en 2024. Cette formation de 30 h est le résultat d’un long travail mené par la CAPB et les professionnels réunis dans le réseau LEHA (réseau des crèches bascophones bilingues ou immersives), dans le cadre du partenariat entre le CNFPT (centre national de la fonction publique territoriale), l’OPLB et la CAPB. Uda Leku avait été sollicitée pour porter la formation administrativement, afin que les salariés des crèches associatives puissent bénéficier d’une prise en charge de leur OPCO.*

*Le bilan très positif des parties prenantes (stagiaires, formateurs et partenaires) avait conduit à l’organisation de deux sessions supplémentaires en 2025, toujours dans le cadre de l’expérimentation.*

- *Entre mai et juillet 2025: 13 professionnelles y ont participé dont 8 du public (pris en charge par le CNFPT) et 5 du privé (pris en charge par Uniformation – Uda Leku).*
- *Entre novembre et décembre: 13 stagiaires dont 7 du public et 6 du privé.*

*Le financement de cette formation est assuré dans le cadre d’une action collective sollicitée par Uda Leku à l’OPCO Uniformation. 2026 devrait être la dernière année de la phase d’expérimentation avec le CNFPT. L’objectif sera de pérenniser la gestion de ce groupe mixte (public/privé) afin de pouvoir intégrer cette offre de formation dans le catalogue de formation du CNFPT et sortir du cadre de l’expérimentation. Cette réflexion sera menée entre les différents partenaires de ce projet.*

**AIGA ikastaldiak / *Formation BAFA***

2025 urtean, AIGA ikastaldi teoriko ezberdinak proposatu ditugu:
- Otsailean, oinarrizko ikastaldia, Baionan, 20 ikastun eta 2 formatzailerekin ;
- Urrian, oinarrizko ikastaldia, Bidarten, 19 ikastun eta 3 formatzailerekin.

- Urrian, sakontze ikastaldia “artea & kultura”, Baionan, 23 ikastun eta 3 formatzailerekin ;
Etxepare lizeoarekin dugu partaidetzak, etxepartar ikastunentzat prezio apalagoa proposatzea zilegiten digu, barnategiaren prezioa apaltzen digutelako. Hori dela eta, gunea gure formakuntza beharrei egokia izateaz gain, ikastaldiak han antolatzen segitzen dugu gure ikastun gehienei prezio erakargarriago bat proposatu ahal izateko. Bi izarrak aterpea (Bidarte) ere biziki egokia da AIGA ikastaldiak antolatzeko, beste ingurumen bat proposatuz formakuntza taldeari.

Hainbat denboraz ibili gira sakontze ikastaldiaren egutegia ezin finkatuz, izen emate eskasez edota gure antolaketa zailtasunei erantzun beharrean (udan). Bi urtez segidan antolatu dugu sakontze ikastaldia urrian, eta orain segur gira egutegi hori egokia zaigula beraz mantenduko dugu.

*Nous avons organisé plusieurs stages théoriques BAFA en 2025 :*
*- En février: BAFA formation générale à Bayonne avec 20 stagiaires et 2 formateurs ;*
*- En octobre: formation générale à Bidart, avec 19 stagiaires et 3 formatrices;*
*- En octobre, approfondissement “art et culture” à Bayonne, avec 23 stagiaires et 3 formatrices.*

*Le partenariat que nous avons avec le lycée Etxepare nous permet de proposer un tarif préférentiel aux élèves d’Etxepare, car le lycée diminue le prix de l’internat pour leurs élèves. C’est pourquoi, au-delà du fait que le lieu soit adapté pour nos formations, nous y organisons nos stages afin de proposer un prix plus attractif à la majorité de nos stagiaires. Le centre Bi Izarrak de Bidart, lieu très adapté également pour les stages BAFA, nous permet de varier notre offre et de proposer un autre environnement à nos groupes en formation.*

*Après avoir expérimenté plusieurs périodes pour organiser nos stages BAFA d’approfondissement (avril, juin, août, octobre), la période des vacances de Toussaint semble être le meilleur calendrier, aussi bien pour assurer un nombre satisfaisant d’inscriptions que pour des questions d’organisation interne. Ainsi, nous continuerons de proposer le stage d’approfondissement pendant les vacances d’octobre.*

**AIGA Habilitazioaren berriztatze eskaera/ Demande de renouvellement de l’habilitation BAFA**

2025 -ren irailaren 15an, 2026-2028 garaiko AIGA habilitazio eskaera txostena bidali dugu ministeritzara. 2020-tik lortu dugun habilitazioa beti 3 urtekoa denez, eskaera luzatu behar dugu 3 urte guziz. Horrez gain, habilitazio berriztatze urtea genuenez, Uda Leku kontrolatua izan da DRAJES zerbitzuetatik. Lehen kontrola otsaileko AIGA ikastaldi denbora ukan genuean. Bigarren kontrola, uztailan, elkartearen bulegoan iragan zen. Bi kontrolak ongi pasa dira, uztailan ohar orokor biziki positiboa ukan dugu : « Formakuntza organismoaren estimu orokorra oso ona da. Koordinazioaz arduratzen den taldea engaiatua eta zorrotza da formakuntza saioen kalitatean. AIGA, bere engaiamendu dimentsioan, urrats guzietan gorpuztua da. Barnetegiko saioen antolatzeko hautuak eskatzen diren eduki guzietan sakontzeko aukerak eskaintzen ditu, bai formakuntza orokorrean, bai sakontze saioan. Aurkezten diren tresna guziak pertinenteak dira, ikastunen segipenak horien ardura hartzea ahalbidetzen du. Formakuntza erakundeak, bestalde, eragile guzien gogoeta iraunkor eta parte hartzaile bat ahalbidetzen duen antolaketa bat du. Partaidetza sareak organismoa lurralde dinamika interesgarri batean kokatzen du.»

*Le 15 septembre 2025 nous avons adressé notre demande de renouvellement de l’habilitation BAFA pour la période 2026-2028. L’autorisation que nous avions obtenu en 2020 étant limitée dans le temps, nous devons renouveler la demande tous les 3 ans. De plus, étant dans une année de demande de renouvellement, nous avons eu deux contrôles de la DRAJES. L’un, contrôle du stage BAFA général de février, l’autre en juillet, contrôle de l’organisme de formation. Les deux contrôles se sont bien déroulés, nous avons reçu une très*

*bonne appréciation générale lors du contrôle de juillet: "Très bonne appréciation générale de l'organisme de formation. L'équipe en charge de la coordination est impliquée et exigeante sur la qualité des sessions de formation. Le BAFA, dans sa dimension d'engagement, est incarné dans toutes les étapes. Le choix d'organiser les sessions en internat offre les opportunités d'approfondir l'ensemble des contenus exigés, tant en formation générale qu'en session d'approfondissement. Tous les outils présentés sont pertinents, le suivi des stagiaires permet une responsabilisation progressive de ces derniers. L'OF a par ailleurs une organisation qui permet une réflexion permanente et participative de tous les acteurs.rices. Le réseau partenarial inscrit l'OF dans une dynamique territoriale intéressante. »*

**Langileek segitu formakuntzak / Formations des salariés**

Talde pedgogikoen formakuntza jarraikiari inportatzia ematen diogu, horretarako, erregularki formatzeko aukerak sortzen edo hartzen ditu. Horra nahas mahas, urtean zehar uda Lekuko langileek segitu formakuntzak, barne edo kanpoko formatzaileekin:

- Hizkuntzak jolasak: noiztenkako animatzaileeri proposatu dugun egun bateko formakuntza, bilgune eta egonaldietan proposatuak diren jolasak aberasteko.
- Bilkurak animatzeko teknikak: zuzendari eta zuzendari-ordeen artean antolatu den barne formakuntza, bakoitzaren praktikak eta tresnak aberasteko helburuarekin.
- Jazarpenari buruzko sentsibilizazioa: elkarteko laguntzaile batek animatu 3 oreneko tailerra.
- Genero estereotipoei buruzko sentsibilizazioa: Mintzalasai kari segitu dugun 3 orduko sentsibilizazioa, Idoiz Rodriguez Mondragon-ekin. Generoari buruzko gogoetan elkartea zertan den galdezketatu dugu, bilgunetan bizi izan ditugun egoera konkretu batzu aztertuz.
- Egonaldien zuzendari berrien formakuntza/segipena: urte guziz proposatzen dugun barne formakuntza/segipena, esperientzia gutti duten zuzendariak laguntzeko eta egonaldietako zuzendarieen arteko lankidetza, elkarlaguntza eta kohesioa azkartzeko.
